



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKA-RIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza Osoak bi mila eta hogeita biko otsailaren batean, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2021-2023) EGUNERATZEA

Udalaren 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eguneratzeari dagokionez, segidan Udalaren idazkariak emandako txostenaren berri eman da:

Ezargarri den legeria:

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8. artikulua, eta lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 10 artikulua eta hurrengoak.

Udalak, 2020ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Udalarentzako eta bere erakunde publikoentzako 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki zuen (2020-05-28ko GAO).

Ondoren, 2020ko maiatzaren 21eko bilkuran, organo horrek berak erabaki zuen Sustapeneko Plan Integrala onartzea, Covid-19aren inpaktua arintzeko neurriekin. Plan horrek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa osatzen du (2020-07-8ko GAO). Era berean, aldaketa zehatzak egin zitzaizkion hasierako Plan Estrategikoari, Auzo-taxi programaren sustapena kontuan hartuta (2020ko abuztuaren 21eko GAO).

2021eko ekitaldirako onartutako aurrekontuak eta onartutako aldaketak ikusita, Udalbatzak 2021eko otsailaren 2an egindako udalbatzarrean Udalarentzako eta bere erakunde publikoentzako 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eguneratzea erabaki zuen (2021-03-12 GAO).

Orain 2022. ekitaldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eguneraketa egin da, eta bertan ezarri dira onura publikoko edo interes sozialeko jarduera edota helburu publiko bat sustatzea helburu duten diru-laguntza berriak, bai eta, lehendik daudenak eguneratu ere. Laguntza horiek koherenteak dira iadanik behin betiko izaeraz onartua dagoen 2022ko udal aurrekontuarekin.



Hirigintza eta Ingurumen Sailean, energia eraginkortasuna sustatzeko bi laguntza lerro berri proposatu dira honako helburu estrategikoekin: Energia-eredu jasangarri baterako trantsizioa bultzatzea, Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko estrategia bultzatzea eta Energiaren kudeaketa lokalagoa eta komunitarioagoa bultzatzea.

1.- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoaren legeak energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko helburuak zehazten ditu. Honen baitan, Azpeitiko Udalak 2021eko otsailaren 19an elektrizitate berritzagarriak sortzeko irabazi asmorik gabeko tokiko

kontsumo kooperatiba bat sortzeko onartu zuen protokoloaren baitan “Azpeitiko Ekindar Koop. Elk.” sorkuntza berriztagarriko planta bat instalatzeko proiektua bideratzen ari da, eta 30.000 €ko dirulaguntza zuzena eta izenduna aurreikusi da.

2.- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoaren legean jasotako helburuak lortzeko, Udalak 2021an protokolo bat martxan jarri zuen Azpeitiko Ekindar Koop. Elkartea sortzeko. Energia berriztagarria ekoizteko edo erabiltzearen aldeko udal politika honen bidez herritar kontsumitzaileen benetako partehartzea bultzatu nahi da jasangarritasun energetikoaren proiektu honetan. Konkurrentzizko prozedura bideratuko da, eta horretarako Udalak 250.000 € aurreikusi ditu.

Loiola Berrikuntza Fundazioarentzat aurreikusita zegoen kopurua bertan behera geratu da, erakundeak bere eginbeharra amaitu duelako.

Kulturzale Elkarteari kultura esparruan partaidetza sustatzeko dirulaguntza zuzena bertan behera geratu da, erakundeak bere eginbeharra amaitu duelako.

Parekidetasun Sailean Basanderiek Elkarteari zuzendutako laguntza zuzena bertan behar geratu da, erakundeak bere eginbeharra amaitu duelako.

Udal diru-laguntza **berrien** kasuan helburu estrategikoak, arauak eta printzipio orokorrak jasotzen ditu, baita ere horren justifikazioa eta kontrola ere. Kasu guztietan, laguntzen baliabideak eguneratu dira 2022ko aurrekontuaren arabera.

*Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren edukia eranskin bezala jaso da.

Esandako guztiagatik, Udalaren idazkariak ontzat eman du proposatu den 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eguneratzea. Bere onarpena Udalbatzari dagokio, eta gardentasun printzipioaren baitan argitaratu egingo da Udalaren web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Diru-laguntzen Datuen Erregistroan.

Eta kontuan izanik aldekoa dela Ogasuna eta Langileria Batzordeak emandako irizpena, Udalbatza Osoko kideek aho batez Udalaren 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eguneraketa onartu du.

Eguneratzeak diru-laguntzen lerro berrietan jartzen du arreta, eta horien alderdiak Planean bertan identifikatzen dira: eskumen-arloak, helburuak eta ondorioak, lorpen-epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, ekintza-plana, jarraipen-araubidea eta emaitzak. Planaren beraren bidez aldatu diren helburuak dituzten diru-laguntzen lerroak ordeztu edo ondoriorik gabe uzten dira, eta diru-laguntzen lerro bakoitza egiteko aurreikus daitezkeen kostuak eguneratzen dira.

*2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategiko eguneratuaren edukia eranskin bezala jaso da, behar bezala diligentziatua.





Azpeitiko Udala

Diru-laguntzen kudeaketak eskatzen duen gardentasun printzi-pioaren baitan 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategiko eguneratua Udalaren web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Diru-laguntzen Datuen Erregistroan argitaratuko da.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila eta hogeita biko otsailaren zazpian.

O.E.

ALKATEA,



